

IKASTOLEN LAN HITZARMEN BERRIRAKO AURRE-AKORDIO
PROPOSAMENA

2024.01.16

LAN HITZARMENAREN INDARRALDIA

Lan hitzarmen berriaren indarraldia **2022, 2023 eta 2024 urterako proposatzen bada ere**, lansarien atalean proposatzen diren aurre-akordioen eragina 2027 urterarte luzatuko da.

LANSARIAK

Aurre-akordio honetan proposatzen diren lansari berriak, zuzenean lotuta daude Hezkuntza Sailaren menpeko titulartasun publikoko langileen lansariak ekiparatzeko prozesuaren esparruan Hezkuntza Sailarekin sinatu beharreko Akordioarekin.

Aipatu Akordioak ekiparazio-prozesuaren proposamenak 2023ko irailetik 2027ra bitarteko urteak biltzen dituen prozesu bat jasoko du, eta lansari-proposamen bakarra eta bateratua da.

Ondorioz, ekiparazio-prozesua amaitutakoan, ikastoletako langileen lansariak Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako langileen lansarien parekoak izango dira. Horrek dakar 2027 urte amaieran, ekiparazio-prozesu osoa amaitu ondoren, ezin izango zaiola eutsi gure lan hitzarmeneko 67. artikuluan, Jarraipen Sariaz, jasotakoari. Zehazteke gelditzen da nola izango den iragankortasun aldia.

Aurrekoaren baitan, honako **oinarrizko-soldata igoera** hauek proposatzen dira:

SOLDATA IGOERAK						
	H.H. - L.H.			D.B.H.- BAT. – Lan. H.		
2021	33.754,04			39.075,68		
2022	34.935,44			40.443,33		
2023	36.535,78			41.968,30		
2024	38.917,67		15,3%	45.052,97		15,3%
2025	Ekiparazioa	627,78	1/3	Ekiparazioa	550,69	1/3
2026	Ekiparazioa	627,78	1/3	Ekiparazioa	550,69	1/3
2027	Ekiparazioa	627,78	1/3	Ekiparazioa	550,69	1/3

Proposatzen diren lansari horiek ez dituzte jasotzen Hezkuntza Sailak 2025, 2026 eta 2027 urteetan, aurrekontu legeetan ezarritakoaren arabera, funtzio publikoaren soldaten igoeraren baitan itunpeko aplika litzakeen soldata-igoerak.

Beste lan-kategoriak

Azpimarratu, aurreko lan-kategoriako oinarrizko soldata lansari altxaketak, zuzeneko irakasleei ez ezik, lan hitzarmeneko langileen beste lan-kategoria guztiei ezarriko zaizkiela antzeko prozeduraren baitan.

Haur Hezkuntza 1 zikloa:

Ziklo honetan lan egiten duten hezitzaileak, 2 urteko itunpeko geletan lan egiten dutenen lansari berdina izango dute. Parekatzea horren indarraldia 2024ko urtarriletik hasiko da, eta lan hitzarmena sinatutakoan gauzatuko da.

LANPOSTUEN MANTENTZEA

Azken urteetan maiz aipatu dugu bizi dugun jaiotza-tasaren beherakadak eta horren ondoriozko matrikulazio-beherakadak, lanpostuak mantentzeko helburuarekin ikasturtero egiten ari garen birkokatzeko prozeduraz gain, sakoneko aldaketa eta irtenbidea batzuk dakartzala.

Irtenbide horiek bilatzeko, lanpostuak birmoldatzeari ekin behar zaio, erronka eta premia berrien arabera, eta hori Hezkuntza Sailarekin adostu eta Akordioan jaso behar da.

Egoera horri aurre egiteko, besteak beste, sinatu zuen Hezkuntza Sailak, ELA ez beste sindikatu guztiekin, 2022ko maiatzaren 26an," *Ikastetxe publikoei lanpostuak esleitzeko irizpideen gaineko akordioa,...*".

Beraz, erronka nagusia da Hezkuntza Administrazioa eta ikastoletako titularren artean bilakaera demografikoak eragindako egoera berriari aurre egiteko egoeraren diagnostikoa partekatzea, eta hurrengo 6-8 urteotarako neurri osagarriak adostea, hori baliatuz hezkuntza kalitatea hobetzeko eta abian dugun eraldaketa pedagogikoa azkartzeko.

Horretarako, ezinbestekoa izango dira besteak beste:

- Aipatu bilakaera demografikoak ikastoletako plantilletan izango duen eragina aurreikustea oraingo irizpideen arabera.
- Lehenetsiko da lerro bakarreko ikastolen egoera.
- Ikastoletan hezkuntza berrikuntza eta digitalizazioa areagotzen, behar bereziak dituzten ikasleei arreta hobetzen, euskara eta hizkuntza gaitasuna indartzen, kudeaketa hobetzen eta langileen egitekoa arintzeko, figura berrien ezarpena. Hau da, modu progresiboan aplikatuko diren irakasle/gela ratioen berrikusketa.
- Egungo langileen lan egoera eta adina begiratzea eta 60 urtetik gorakoen langileentzat gazte berritze planak gauzatzeko neurri zehatzen azterketa.

Aipatutakorakoak, egutegi jakin bat eskatzen du, eta ondorengo hilabetetako egitekoa izan behar du, eta Hezkuntza Sailarekin sinatuko den Akordioaren ezinbesteko atala izango delarik.

LANALDIEN ATALEAN GEHIKUNTZAK ETA ALDAKETAK

36.- artikulua "Ikasturteko eta asteko lanaldiak".

B.- Haur Hezkuntzako bigarren zikloa:

Ikasturteko asteko lanaldia **23** eskola-ordutakoa izango da, jolas aldiak barne.

C.- Lehen Hezkuntza:

Ikasturteko asteko lanaldia **23** eskola-ordutakoa izango da, jolas aldiak barne.

D eta E.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: berria

DBH etapan tutoretza indartzea proposatzen da era honetan : mailako ikasle guztiak kontutan izanik, tutore bakoitzak gehienez 23 ikasle izango ditu 2024-25 ikasturtean DBH 1 zikloan, eta 2025-26 ikasturtean DBH 2 zikloan.

Oharra: lerro bakarreko ikastoletan aintzat hartuko dena zikloa izango da.

G.- Hezkuntza Laguntza Espezialistak (HLE):

"Astean lanaldi osoa duten HLEk **4 ordu** osagarri edukiko dute, %100 eta %50eko artean lanaldia burutzen dutenak **3 ordu** osagarri, eta %50 baino gutxiagoko lanaldia burutzen dutenak **2 ordu** osagarri".

H.- Jarduera osagarrietako langilea:

Langile hauen ikasturteko lanaldia gehienez 1.585 ordukoa izango da. Ikasturtetan ordaindutako beren gauzetarako hiru lanegun hartzeko aukera dute, jarraian edo banaka. Egun horiek hartzeko garaian ukituriko langileen arteko adostasuna bultzatuko da.

I.- Administrazio eta zerbitzutako pertsonalgora (AZP):

c.-) AZPko langileek, ikasturtean ordaindutako beren gauzetarako hiru lanegun hartzeko aukera dute, jarraian edo banaka. Egun horiek hartzeko garaian ukituriko langileen arteko adostasuna bultzatuko da.


BAIMEN ATALEAN GEHIKUNTZAK ETA ALDAKETAK

45. artikulua.- Ordaindutako Lizentziak:

- **E) Senideen gaixotasun larriagatiko lizentzia**
 - 2.- Guraso edo bikotekidearen gurasoa bada: **5** lanegun gehienez (Ospitalizazioak dirauen bitartean).
 - 3.- Neba-arreba, koinatu-koinata, suhi-errain, aiton-amona, bikotekidearen aiton-amona, iloba edo bikotekidearen iloba bada: **5** lanegun gehienez (Ospitalizazioak dirauen bitartean).
- **G) Medikarengana joateko lizentziak:**

Langile bakoitzak seme-alaben mediku ez diren osasun arloko beste espezialista batengana eramateko ikasturtean **15** ordu hartu ahal izango ditu.
- **H) Ohiko bizilekuz aldatzeagatiko lizentzia:**

Ohiko bizilekua aldatzeko, lizentzia **bi eguneko** izango da.
- **J) Era berean, odolkidetasunezko 2.mailara arteko ahaideak eta lagunak bisitatzeko baimena emango da, pertsona horiek askatasuna kentzen duten zigorrak betetzen ari badira. Baimenak bisita egiteko beharrezko denbora iraungo du, bisita horiek laneko ordutegitik kanpo ezin badira egin.**



- **M) Gurasoei edo bikotekidearen gurasoei** eta legalki norberaren ardurapean daudenei, mediku kontsultan, tramitazio ofizialetan edo antzeko egoeretan laguntzeko urtean **20** orduko lizentzia edukiko du. Kasu guztietan egiaztatzea aurkeztu beharko da.
- **O) Artikulu berria**
Ezinbesteko kasuetan, langileak lanera ez agertzeko eskubidea izango du, senideekin edo bizikideekin zerikusia duten berehalako arrazoiak direla-eta beharrezkoa denean, eritasun edo istripuren batek behartuta, langilea pertsonalki berehala joatea ezinbestekoa denean. Atal honetan aurreikusitako arrazoiengatik, langileek absentsia-ordu ordainduak izateko eskubidea izango dute, urtean lau egunen baliokideak izango direnak, beti ere beraien lan-kategoria eta lanaldiaren araberrako proportzionalak. Horretarako, langileak lanera ez agertzeko arrazoiaren egiaztatzea aurkeztu beharko du.

45. artikulua.- Ordaindu gabeko lizentziak:

a) Haurrak eta aniztasun funtzionala duten pertsonak zaintzeko baimena: (gehikuntza)

Eskubide bera izango dute ezkontidea edo izatezko bikotea zuzenean zaindu behar dutenek, edo bigarren gradura arteko odolkidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko senideren bat, izatezko bikotearen ahaide odolkidea barne, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz moldatu ezin bada eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

f) artikulu berria


1. Langileek seme-alaba edo urtebetez baino gehiagoz etxean hartutako adingabea zaintzeko baimen-eskubidea izango dute, adingabeak zortzi urte bete arte. Baimen honek ez du zortzi aste baino gehiago iraungo, aste osoak modu jarraituan edo ez-jarraituan hartuz, lan hitzarmenean garatuko den araudiaren arabera.


2. Baimen hori langile bakoitzaren eskubidea da, gizonezkoa zein emakumezkoa izan, eta ezin zaio eskubide horren erabilpena beste inori eman. Langileak zehaztu beharko du noiz hasi eta amaituko den baimenaren erabilpena, edo, hala badagokio, noiz izango diren baimenaldiak. Enpresari hamar egun lehenago jakinarazi behar zaio, ezinbesteko kasuetan izan ezik, betiere, enpresaren egoera eta antolamendu-beharrak kontuan hartuta.

BESTELAKOAK

51. artikulua. Nahitaezko eszedentziak:

- d.-Bigarren mailako odolkidetasunaren barruan, gaixo larri dauden senideak zaindu behar izateagatik; eszedentziak, gehienez ere, **hiru** urtez iraungo du.
- e.-Seme-alabak zaintzeko, gehienez ere, **lau** urteko eszedentzia hartzeko eskubidea du langileak,

IMLCOAG ELLANDEA PABOIR


EIB


LAB
 Zubero
